

Amurrio Bidean-ek Enpresa Proiektuen Lehiaketaren X. urteurrenerako deia egin du, Reformurrio Enpresaldean enpresa-egitasmo berrien ezarpena sustatzeko eta horri bide emateko, honako oinarri hauen arabera:

Oinarriak

Helburua

Oinarri hauen helburua da Amurrio Bideanek (Amurrioko Udalerako Toki Garapenerako Sozietatea) antolatzen duen AMURRIO BIDEANEN ENPRESA-PROIEKTUEN LEHIAKETAREN X. URTEURENA arautuko duten arauak ezartzea.

Parte-hartzaileak

Lehiaketa honetan, 2016ko urtarrilaren 1aren ondoren enpresa-egitasmo bat martxan jarri duten edo 2016ko abenduaren 31 baino lehen jarriko duten pertsona fisikoek, bakarka edo taldean, eta pertsona juridikoek (ETEak) parte hartu ahalko dute. Reformurrio Enpresaldean garatuko den jarduerak Zerbitzuen Sektorearen barruan egon behar du, zehazki, “Bulegoak” sektorearen barruan, enpresaren helburu soziala edozein dela ere.

Proiektuen eskakizunak:

Proiektua hasteko eguna ezingo da izan 2016ko urtarrilaren 1a baino lehen. Proposamenek, gutxienez, honako hauek jaso beharko dituzte:

1. Proiektuaren izenburua.
2. Talde sustatzailearen/ekintzailearen aurkezpena (CVa); horretarako, bereziki nabarmendu beharko dira gaitasun eta trebetasun ekintzaileak, profila edo profilak nola egokitzen diren garatuko den proiektuarekin edo jarduerarekin eta baterako esperientziak, baldin eta pertsona sustatzailea bat baino gehiago bada.
3. Enpresa-proiektua:
 - o Negozio-ideiaren eta enpresa-helburuen deskribapen laburra
 - o Merkatuaren analisisa (Eskaintza eta Eskaria). Negozio-aukera

- Ezaugarri berritzaileak eta bereizleak eta jarduerak gure ingurunean duen eragina (beste merkataritza-enpresa batzuekiko sinergiak edo lankidetzak etab.)
- Marketin-plana
- Eragiketa-plana (baliabide teknikoak, giza baliabideak eta materialak).
- Enpresako ekonomia- eta finantza-plana edo enpresa-proiektua.

Aurkezteko epea eta lekua

Eskabideak aurkezteko epea 2016ko urriaren 15ean amaituko da. Parte hartzeko eskabideak Amurrio Bideanen aurkeztuko dira (helbidea: Refor Amurrio Enpresaldea, El Refor kalea, z.g. 01470 Amurrio, Araba). Proiektuaren deskribapenarekin batera, pertsona eskatzailearen edo eskatzaileen izena, helbidea, telefono-zenbakia eta posta elektronikoa erantsi beharko dira.

Saria

Irabazle hautatzen den proiektuak honako hau jasoko du:

- 27,80 eta 32,64 m² arteko modulu baten alokairua debalde, 6 hilabetez, Refor Amurrio Enpresaldean, errentamendu-prezioan normalean izaten diren zerbitzuekin (garbiketa, atezaintza, Interneterako konexioa, office-a etab.).
- Negozioa finkatzeko aholkularitza espezializatuko doako 10 ordu.
- Refor Amurrio Enpresaldean bilera-gelak erabiltzeko aukeran lehenespena

Proiektuen ebaluazioa eta hautaketa

Ebaluazio-batzordea enpresa-kudeaketan eta/edo enpresak sortzeko aholkularitzan esperientzia duten pertsonak osatuko dute. Honako hautaketa-irizpide hauek balioetsiko dira:

- Proiektuaren berrikuntza maila (10 puntu)
- Enpresa-, teknologia- eta ekonomia-bideragarritasuna. (15 puntu)
- Talde sustatzailearen profila eta eraketa (10 puntu)

- Enplegua sortzea (10 puntu)
- Jarduerak toki-garapenarekin duen lotura (5 puntu)

Proiektuek honako fase hauek gainditu behar dituzte:

- 1.- Aurkeztu diren proiektu onenen aurretiko hautaketa egingo da.
- 2.- Egoki irizten bazaio, aurretiaz hautatutako proiektuen pertsona ekintzaileei elkarrizketa egingo zaie, daukaten gaitasun teknikoa eta enpresariala zehazteko.
- 3.- Aurreko etapak gainditzen dituzten proiektuak epaimahaiak ebaluatuko ditu; epaimahaiak informazioa edo argibideak eskatu ahalko dizkie parte-hartzaileei.

Epaimahaiaren erabakia

Epaimahaiaren erabakia jendaurrean jarriko da 2016ko urriaren 30a baino lehen. Doako errentamendurako sei hilabeteak zenbatzen hasiko dira epaimahaiaren erabakia jakinarazten denetik, hautatutako proiektuaren sustatzaileak edo sustatzaileek eta Amurrio Bideanek beren artean adostutako egunean, eta, betiere, 2016ko abenduaren 31 baino lehen. Era berean, sei hilabeteak zenbatzen hasteko ezarritako egunean, enpresak eratuta egon beharko du eta/edo enpresari indibidualak alta emanda egon beharko du.

Konfidentzialtasuna

Aurkeztutako proiektu guztien konfidentzialtasuna bermatzen da. Antolamenduak ezaugarri orokorrak zabaldu ahalko ditu, bai eta irabazleen izenak ere.

Parte-hartzaileen betebeharrak

Lehiaketan parte hartzeak esan nahi du oinarri guztiak eta epaimahaiaren erabakia onartzen direla. Berriaz onartu beharko dute saria, helburu izan den jarduera bete beharko dute eta egindako jardueraren ondoriozko zerga-betebeharrak eta gizarte-segurantzarekikoak bete beharko dituzte.